



MINISTERIO
DE EDUCACIÓN
Y FORMACIÓN PROFESIONAL

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA PILOTUA

Batxilergoko 1. maila
2022-2023 ikasturtea

Latin I

JARRAIBIDE OROKORRAK ETA KALIFIKAZIOA

Proba honek **BOST** galdera ditu:

- **1. GALDERA. ITZULPENA.** Galdera honen gehienezko kalifikazioa 4 puntukoa da.
- **2. GALDERA. ULERMENA.** Galdera honen gehienezko kalifikazioa puntu 1ekoa da.
- **3. GALDERA. ANALISI MORFOSINTAKTIKOA.** Galdera honen gehienezko kalifikazioa puntu 1ekoa da.
- **4. GALDERA. LEXIKOA.** Galdera honen gehienezko kalifikazioa puntu 1ekoa da.
- **5. GALDERA. HARRERA.** Galdera honen gehienezko kalifikazioa 3 puntukoa da.

PROBA EGITEKO GEHIENEZKO DENBORA: 105 MINUTU

Ni, ni eta niren munduan bizirautea

Jarrera nartzisistek inguratzen gaituzte. Exhibizionismoa sare sozialetan, “selfie kiko” obsesioa eta norberaren irudia. Epidemiaz hitz egiten da, baina hain kezka garria al da?

Haxe da Cristina Galindoren artikulua baten hasiera, 2023ko otsailaren 5ean El País egunkarian argitara tua eta gaur egun portaera nartzisistek duten indarrari buruzkoa. Nahasmendu nartzisistaren jatorria, proba honen gaia den mito greko-latindarrean dago.

1. GALDERA. ITZULPENA

Egin ezazu ondorengo testu zatiaren itzulpena, probaren amaieran aurkituko duzun hiztegiaren laguntzaz.

Olim pulcherrimus iuvenis, Narcissus nomine, per silvas in venatione currebat. Nymphae in silvis eum videbant et valde amabant, sed superbus puer nympharum omnium amorem contemnebat. Quondam post venationem ad amoenum fontem venit et, dum sitim sedare cupiebat, sitis altera crevit: pulcherrimam imaginem formosi iuvenis vidit qui eum aspiciebat. Statim Narcissus amore captus est*...

2. GALDERA. ULERMENA

2.1. Zergatik agertzen da Nartziso “superbus” gisa testuan? Zer beste modutan deskribatzen da? (0,5 puntu)

2.2. Zer motatako eraketa du “pulcherrimusek”, “pulcher, pulchra, pulchrum” –en aldean? Zergatik errepikatzen da termino hau testuan zehar? (0,5 puntu)

3. GALDERA. ANALISI MORFOSINTAKTIKOA

Proposaturiko perpausaren analisi morfologiko eta sintaktikoa egin ezazu. Oroitu azterketa morfologikoan izenen, adjektiboen eta izenordainen kasua, generoa eta numeroa adierazi behar dituzula. Aditza bada, persona, numeroa, denbora, modua eta ahotsa eman itzazu. Era berean, analisi sintaktikoan hitzak sintagmetan taldekatu behar dituzu eta bere funtzio sintaktikoak adierazi.

pulcherrimam imaginem formosi iuvenis vidit qui eum aspiciebat.

4. GALDERA. LEXIKOA

4.1. Gaztelaniara pasatzean “fontem” termino latinoak aldaketak jasan ditu. Deskribatu gertatutako aldaketa fonetikoak eta azken emaitza idatzi. (0,5 puntu)

4.2. Azaldu gaztelaniazko “invidente” eta “sedante” hitzak testuko zein hitz latinoekin erlazionatzen diren. Era berean, gaztelaniazko esanahia eman horiek osatzen duten latinezko lexemak kontuan hartuta. (0,5 puntu)

5. GALDERA. HARRERA

John William Waterhouse-en (1849-1917) *Nartziso* kuadroaren erreprodukzio hau behatu:



5.1. Zure ustez, latinezko testuko zein bi termino dira funtsezkoak irudia interpretatzeko? Justifikatu, labur-labur, zure hautaketa. (puntu 1)

5.2. Irudiaren eta testuaren interpretaziotik abiatuta, egin ezazu 250hitz inguruko hausnarketa kritiko bat gaur egun Nartzisoren mitoak duen indarraz. (2 puntu)

Zure testua osatzeko hurrengo galderez balia zaitezke:

- Gaur egun portaera Nartzisistak nagusitzen direla uste duzu?
- Zergatik hitz egiten da nartzizismoaren epidemiaz? Zure belaunaldian eraginik baduela esango zenuke?
- Zer indar dauka itxurak gure egunerokotasunean?

HIZTEGIA	
alter, -a, -um: beste	Narcissus, i: Narciso
amo, as, are, avi, atum: maitatu	nympha, ae (f): ninfa
amor, -oris (m): maitasun	nomen, inis (n): izena
amoenus, -a, -us: atsegin	olim (adv.): veste garai batean
aspicio, -is, -ere, aspexi, aspectum: begiratu, kontenplatu	omnis, e: guztia
capio, -is, -ere, cepi, captum: hartu, harrapatu	per (prep.): -(e)tik, -(e)n bidez
cresco, -is, -ere, crevi, cretum: jaio, hazi	post (prep.): ondoren
contemno, -is, -ere, contempsi, contemptum: gutxietsi, baztertu	puer, -i (m): mutil, mutiko
cupio, -is, -ire, -ivi, -itum: desiratu	pulcher, chra, chrum: (adj.) ederra
curro, -is, -ere, cucurri, cursum: korrika egin	qui, quae, quod: (izenord.) ...-(e)n
dum (conj.): bitartean	quondam: (adb.) egun batean
et: (lok.) eta	sed: (lok.) baina
formosus, a, um: ederra	sedo, -as, -are, -avi, -atum: lasaitu
imago, imaginis: irudi	silva, -ae (f): baso, oihan
is, ea, id: (izenordain anaforikoa) hau	sitis, -is (f): egarri
iuvenis, -is: gazte	statim (adv.): berehala
	superbus, -a, -um: harro, haundiuste
	valde (adv.): asko, modu handi batean
	venatio, -onis (f): ehizaldi
	venio, is, ire, ivi, itum: etorri, iritsi
	video, es, ere, vidi, visum: ikusi

*captus est: 3 sg., indicatibo pasibo preterito perfektua.